

# «Oinarrizko Hitzarmen Demokratikoa sinatu duten eragileek egindako bidea erabakitze prozesuan aprobetxatu beharreko puntu nagusietako bat da»

---

XXXRI EGINDAKO ELKARRIZKETA

---

Joan den martxoan, Oinarrizko Hitzarmen Demokratikoa sinatu zutenek Hitzarmenerako Mahai bat sortzeko konpromisoa hartu zuten. XXXk adierazi du «bide onetik» doala lan hori.

Gaineratu du «gatazka politikoak dituen mugen barruan, pozik egon gaitzkeela orain arte lortu denarekin eta epe laburrera lortzea espero dugunarekin. Bere garaian, Gatazkaren Konponbiderako Mahai bat sortzen ahalegintzeko konpromisoa zabaldu zen jendaurrean, helburu gisa 2006ko Aberri egunerako lortzea jarri zen, eta ikusten hasi ginen, mahai batek behar dituen hanka guztiak biltzea zaila izango zela jakin arren, aurrera egiten jarraitu ahal izango genuela alde aurreko mahai bat eratuz gero, horren bidez zenbait adostasun bildu eta alderdi desberdinak metatzen joan gintezkeelako, eta ahalegin hori eginda dago. Gaur egun mahai hori hortxe dago, dagoen bakarra da, eta bertan, 55 alderdi, sindikatu eta gizarte-eragile daude. Akordio zabalagoak lortzeko erabili daitekeen eta, nire ustez, erabili behar den hitzarmen bat da, beraz. Mahai horretan ez daudenekin hizketan ari gara eta ateak zabalik daude, PPrekin eta PPren kideekin izan ezik, ez dutelako gurekin harremanik izan nahi.»

## **Zein dira lan honen oinarriak?**

Azkenean, herri honetan, zazpi lurralde hauetan bizi garen gizon eta emakumeok kontsultatuak izan behar dugu eta denon artean adostu behar dugu zer galdetuko den, noiz galdetuko den eta nola galdetuko den. Hori da Oinarrizko Hitzarmen Demokratikoa.

## **Zure ustez, Hitzarmenaren sinatzaileek baino eragile gehiagok onartzen al dute printzipio hori?**

Bai, halaxe ikusten ari gara. Gertatzen dena da azkenean era honetako gatazka bat terminoen gatazka ere bihurtzen dela. Adibidez, Euskal Herriaren kontzeptu hori bera baliteke modu

berean ez ulertzea batzuek eta besteek, baina ikusi ahal izan dugunez, denok aho batez onartzen dugu badagoela gatazka bat, gainditu egin behar dela eta elkarrizketa dela bidea, eta mahai batean eseriko gara nola konpontzen dugun aztertzeko, eta gero, horren inguruko galdeketa egin beharko zaio gizarteari. Argi dago hitzarmenaren inguruko eztabaida horretan aztertu egin beharko dela non galdetuko den eta noiz galdetuko den. Baina dagoeneko horrek lortu du onarpen bat eta pozik gaude horregatik.

## **Zein da Hitzarmenerako Mahai honen baliorik aipagarriena?**

Lehena, sentsibilitate politiko desberdinak akordio batzuetara iritsi izana eta gaur arte mahai horretan denok batera irauin izana. Gainera, mahai horretan parte hartzen duenak parte hartzen du, eta horrek esan nahi du ekimen honetatik ateratzen diren agiriek babes politiko eta sozial garrantzitsua dutela. Denok dakigu zein eratako gatazka bizi dugun hemen eta, esate baterako, Presoen Kolektiboa bertan egotea oso garrantzitsua da, gatazka politiko armatu hori behin betiko gainditzeko benetako borondatea dagoela adierazten duelako. Eta aprobetxatu egin behar da hori. Etorkizunari begira, gure ekarpenik handiena lanean segitzea da eta sentsibilitate politiko desberdinetatik akordio batzuk erdietsi daitezkeela frogatzen joatea, inondik ere maximalistak ez diren oinarri batzuetatik abiatuta, baizik eta beste erakunde batzuek eztabaidatu eta onar ditzaketanak, horien oinarri demokratikoagatik besterik ez bada ere. Orain bada kontzeptu batzuk eztabaidatzeko aukera, lehen ez zegoena, eta halaber, lehen ez zeuden jarrerak malguagoak daude.

## **Nolako erantzuna ematen ari dira hitzarmena sinatu ez zuten alderdiek?**

Ona. Beti saiatu izan gara bestearen erantzunaren zergatia ulertzen. Gure iritziz, sinatu ez duten alderdiek beste interes batzuk, beste estrategia batzuk, beste agenda edo egutegi batzuk eduki ditzakete. Inoiz ez dugu inorekin eztabaidatu zergatik ez dauden eta ez diogu inori esan bertan egon beharko lukeela.

Ateak zabalik edukitzen lagundu digu horrek. Uste dut duela urte batzuetako mesfidantza mailak gainditu egin direla eta, oro har, arazo hau benetan konpontzeko asmoa dagoela, eta uste dut borondate hori planteamendu estrategiko zehaztutara ekartzeko unean aurkitzen garela. Sinatzaileek ontzat eman dute estrategia hori eta sinatu ez dutenak zain daude ea zer datorren. Horrexegatik, azpimarratu egin nahi dugu sinatu ez duten eragile batzuek beren ekarpenak egiteko konpromisoa hartu dutela, eta hain justu ere, idatziz, esate baterako IU/Ezker Batuak, EAJk eta LCRk. Eta Berdeek eta Batzarrek egindako ekarpenak jasotzeko zain gaude.

## **Zer eratako eragozpenak topatzen ari zarete?**

Eragozpen nagusia, hasiera-hasieratik, herriaren parte batek, PPK eta bere kideek gurekin egon nahi ez izana da. Gero kanpaina mediatikoa dugu, sor litekeen prozesu hori blokeatu nahian dabilena, baina sekulako eragozpena izango zela zirudien arren, ez da horrenbestekoa izan, eta uste dut BECeko ekintza, esate baterako, elementu onuragarria izan dela. Eta, zalantzarik gabe, asko lagundu du Anoetako planteamenduak, gatazkari irtenbide demokratiko bat ematearen alde jokatzen duten eragile guztiek etorkizunean izango duten protagonismoa argi eta garbi azaldu delako.

## **Espero al duzue oraindik hitzarmen hori sinatu ez dutenen artetik eragile garrantzitsuren batek parte hartzea Aberri Eguna baino lehen?**

Eginahalak egiten jarraituko dugu. Ez dakit lortuko dugun EB, IUN, PSE, PSN edo EAJ, funtsezko elementuak izanik, mahai horretan egotea, baina pozik egongo nintzateke bakoitzak bere tokitik denon artean adostutako bake-prozesu horri lagunduko balio. Bigarren mailan dagoela iruditzen zait Hitzarmenerako Mahaiaik berak hori lortzea edo Hitzarmenerako Mahaiaz baliatzea norabide batean edo bestean aurrera egiteko. Badakigu, halaber, zaila dela, egin dituzten adierazpen batzuk entzun ondoren, Alderdi Sozialista gure mahaian esertzea, EAJ bezalaxe, baina guk ahaleginak egingo ditugu

gure borondatea irmoa delako eta egindakoa aprobetxatu beharra dagoela frogatzeko.

### **Arestian Euskal Preso Politikoen Kolektiboak duen partaidetzaz hitz egin duzu, nolako garrantzia ematen diozu horri?**

Ezin da arlo honetan akordiorik, testurik edo eztabaidarik planteatu Presoen Kolektiboak zer iritzi duen jakin gabe. Are gehiago, arduragabekeria izango litzateke pentsatzea eragile guztien iritzia ezagutu gabe egin daitekeela, eta noski, eragile armatuez ari naiz. Haiei entzun gabe eta zer iritzi duten jakin gabe herri honetan bakea lortzeko proposa litekeen irtenbidea hankamotz geratuko litzateke.

### **Antzeman al duzue Presoen Kolektiboan apustu argirik gatazka konpontzeko?**

Bai, zalantzarik gabe. Hitzarmena sinatu zuten unetik, ez dut esango lana egina dutenen artetik aktiborik garrantzitsuena denik, baina bai garrantzitsuenetako bat. Ideia hau bi edo hiru politikariena ez dela, baizik eta atzean gizartearen babes handi hori duela jakitea oso garrantzitsua da. Denok dakigu nolako garrantzia duen Preso Politikoen Kolektiboak hitzarmena sinatu izanak.

### **Orain, Lehendakariak bultzatu nahi duen mahaiaz ere hitz egiten ari dira. Zer iritzi duzu horri buruz?**

Iritzi ona dut, mahai horretan finkatu diren zenbait printzipioekin ados gaudelako, esate baterako, azkenean hitzarmen politiko bat lortu beharko dugula eta herritarrei horri buruzko galdeketa egin beharko zaiela.

### **Hitzarmenerako Mahaia eta Lehendakariarena baztertzailak al dira, osagarriak, paraleloak...?**

Osagarriak dira, abian jartzen den beste edozein bezalaxe. Inoiz ez dugu mahaien lasterketa batean parte hartu nahi izan. Eusko Jaurlaritzak, edo Espainiakoak, jarrera ausarta izanez gero, horrelako prozesu bat abian jartzea erabakitzen badute, guk alderdi desberdinekin izan ditugun hartu-emanetan lortu dugun guztia egindako bidea izango da. Zenbaiten artean gai batzuk hitz eginak eta adostuak edukitzea aurrerapen bat da.

### **Zein eginkizun betetzen ari dira nazioarteko begiraleak?**

Beren eginkizuna hemen gertatzen ari dena nazioarteko eragileei azaltzea eta ezagutaraztea da, eta bigarren urrats batean, haien inplikazioa erdiestea. Uste dut, alde horretatik, aurtengo lehen hilabetean urrats handia egin dugula Europako Legebiltzarrean, euskal bake-prozesuari laguntzeko talde bat sortu genuenean,

sentsibilitate politiko desberdinetako kideek osatua. Gainera, Euskal Herriari begira, pertsona horiengana jo baldin bada prozesu honen borondatearen fede eman dezaten, apustu serioa delako da.

### **ETAk begi onez ikusi du Oinarrizko Hitzarmen Demokratikoa. Zure ustez, erakunde armatuak prozesuan duen inplikazioa erakusten al du horrek?**

Bai, zalantzarik gabe. Eta arestian eragozpenez edo laguntzez mintzatu garen bezalaxe, orain aipatzen ari garen baldintza hauetan, iraganean ez zeuden baldintza hauetan, zeren eta gaur egungo hauek baldintza eta jarrera malguagoak baitira, bake-prozesu bat abiarazteko borondatea erakusten duen oro lagungarri da. Eta jakina, Euskal Herriari oraindik ere militarik aktibo dagoen aldeetako batek prozesu hori ontzat ematea garrantzitsua da. Imagina dezagun kontrako eszenategia: talde armatuaren oniritzia ez lukeen bake-prozesu batek porrot egingo luke derrigorrez.

### **ETAren iritziak Oinarrizko Hitzarmen Demokratikoa egoera aldatzen ari den seinaleetako bat izateak, eta horrek, kargu politikoen aurkako erasoak bertan behera uztera bultzatu izanak ematen al dizue bide pentsatzeko egiten ari zaren lana hasia dela fruituak ematen?**

Gaur orain urtebete baino jende gutxiago mehatxupean egotea, batzuku orain lasaia bizi ahal izatea, gauza ona da. Baina ez dugu pentsatu behar Hitzarmenerako Mahaia egindako lanagatik bakarrik lortu denik hori. Azkenean, bide onetik doan giro politikoaren isla da mahaia.

### **Zure eskemetan, zein eginkizun izango luke ETA eta Espainiako gobernuaren arteko hitzarmen batek?**

Gaur egun ia mundu guztiak onartzen du Anoetako planteamendua, bi norabide dituena: badira gai batzuk ETAK Estatuarekin hitz egin beharrekoak, baina politikaz beste foro batzuetan eta beste mahai batzuetan hitz egin beharko dugu. Guk ez dugu esango haiek zertaz hitz egin behar duten, gu mahai politikoaz arduratuko gara. Beste gai batzuek beste bide batetik joan beharko dute.

### **55 eragileren arteko adostasuna alde aurreko baldintzarik jarri gabe lortu duzue? Orain asko aipatzen den gauza da mahai hori indarkeriarik gabeko eszenategi batean osatu behar dela...**

Batzuetan susmoa izaten dut prozesu honek sortu dituen agiriak ez dituztela behar hainbat irakurri. Gatazka honi buruzko diagnostikoa egin zenean, 2004. urteko Aberri

Egunaz ari naiz, agiri hartan ezartzen zen mahaian dauden alderdi politikoei hitz egin behar dutela baldintzez eta beharrezko eszenatokiez, bake-prozesu horretan sakontzen jarraitzeko. Bide hori azpimarratzen jarraitzen dugu guk, eser daitezela alderdiak eta erabaki dezatela nolako bake-prozesua eta nolako baldintzak behar diren. 2004. urtetik esaten ari gara baldintza horiek denen artean erabaki behar direla eta ezin duela inork bere aldetik halakorik inposatu.

### **Batzuekin eta besteekin izan dituzuen harremanen ondoren, zuen ustez ba al da arrazoi objektiborik baikor izateko?**

Uste dut baietz. Badirudi ikusi ahal izango dugula mahai politiko bat, eta bertan euskal gatazka politikoa hitz egin ahal izango dugula. Ez bakarrik Hitzarmenerako Mahaia egiten ari den lanagatik, baizik eta Eusko Jaurlaritzak egin duen planteamenduagatik, PSOEk Kongresuan aurkeztu zuen mozioagatik... borondatea dagoela erakusten duten urratsak egiten ari dira. Ez da erraza izango. Ikusi egin beharko da nork bultzatzen duen mahai hori, gainerakoek bat egiten duten, interes partikularrik badagoen... Helduen gisa jokatzeko espero dut, azalari baino gehiago mamiari begiratzea, eta esertzea eta hitz egitea.

### **Catalunyako Estatut horrekin gertatzen ari dena ikusita, zuen ustez Estatuak edo bere hemengo ordezkariak onartuko al dute euskal herritarrek beren etorkizuna erabakitzea?**

Hor dago gakoa. Horixe da gatazkaren muina, baina baita soluzioarena ere. Herri honetan sentsibilitate politiko asko daude, baina erdiak baino gehiagok pentsatzen du soluzioa hortik etorriko dela. Herriaren %50ak baino gehiagok funtsezko ideia horri uko egingo dion halako akordio politikorik ez dut ikusten. Nire iritziak, eztabaidaren gakoa horri nola deitu eta noiz egin izango litzateke. Hori jasoko ez duen hitzarmen bati begira egoteak ez gaitu inora eramango, eta hurrengo egunean Euskal Herria Europako errepublika independente izango dela pentsatzeak ere ez. Ez dut uste ez PSOE eta ez Espainiako presidentea Kongresuan mozioak aurkezteko eta oposizioarekin liskar politiko gogorrek izateko dinamika horretan sartu direnik mahai gainean jokoan zer dagoen jakin gabe. Barre egitea irudituko litzaidake eta ez dakit horrek zer onura politiko ekar diezaikeen. Bake-prozesu baten aldeko urratsa emateko prest agertu diren unetik, pentsatu beharra dago hori mahai gainean egongo dela jakingo dutela.